



## Apirilak 28: Lan Osasunaren Nazioarteko eguna

Apirilak 28 aspalditik eta mundu osoan sindikatuek eta lan osasunaren aldeko mugimenduek bultzatutako mobilizazio eguna da, lanak sortzen dituen istripu eta gaixotasunei aurre egiteko. Araban Prudentzio Deuna ospatzen denez, ekintzak 27an burutuko dira.

Irakaskuntzan **Lan Istripu** gutxi dauden arren, argi ikusten dugu beste alor batzuetan arazo larria dela. Euskal Herrian urtero 150 pertsona ateratzen dira etxetik lanera joateko, baina ez dira bizirik itzultzen. Lan istripuek 1000 pertsona hiltzen dituzte urtero espainiar estatuan. Langileen adina aurrera joan ahala, istripu kopurua gutxitu egiten da. Izan ere 16 eta 19 urte arteko langileak dira istripu kopuru handiena dutenak. Langileek lanpostuan daukaten antzinateasunari erreparatu ezkeru, urtebete baino gutxiagoko antzinateasuna daukaten langileek jasaten dituzte istripuen % 55a. Datu hau behin-behinekotasunari ere lotuta dago. Behin behineko kontratua duten langileek finkoek halako hiru istripu izaten dituzte.

Pertsona horiek gure familiakoak, auzokoak edo lagunak izan daitezke, edo gure ikastetxeak konpontzera etorri direnak, duela gutxi Barakaldoko ikastetxe batean gertatu zen bezala. 20 urteko mutila zen, behin behineko kontratua eta bi hilabeteko esperientzia baino ez zuena. Argazkian agertzen den aldamiaoa prestatzen ari zela gainean erori zitzaion eta bertan hil zen, ikastetxeko patioan. Askotan esaten digute hildako pertsonak direla errudunak, zuhurtzia falta izan dutela eta. Baina kontu horiek errealitatea ezkutatzeko aitzakiak baino ez dira. Eta errealitatea zera da: Administrazioek eta enpresariak ez dituztela prebentzio neurri eraginkorrik hartzen; Lan Arriskuak prebenitzeko legea ez dela betetzen, nahiz eta duela 8 urte indarrean egon; prekarietateak izugarritzko garrantzia daukala istripu horietan, langileen eskubideak murrizten baititu eta prebentzio neurririk gabe lan egitera behartzen baititu langileak.

Egoera honen aurrean, ez da nahikoa beste pertsona bat lanean hil dela jakiten dugun bakoitzean lur jota geratzea. Mobilizazioari ekin behar diogu, Barakaldoko ikastetxeko ikasleek, irakasleek eta langileek egin zuten bezala, arazoa konpon dezaketen prebentzio neurriak behingoz har daitezten. Beraz, egun horretarako planteatzen da hausnarketa, asanbladak egitea eta irakasleen kasuan klasean komentatzea, baina protesta eta elkartasuna ere adierazteko, kontzentrazio txiki bat egitea ikastetxeko atarian, posible bada goizeko 9etan, bestela errekreio orduan.

Irakaskuntzan, aldiz, gertutik ezagutzen dugu **Gaixotasun Profesionalen** eragina, lanak sortzen dituen osasun kalteak, estresa, gihar-hezurretako gaixotasunak eta ahotseko arazoak, gehienetan gaixotasun arruntak izango balira bezala hartzen direnak, sendatzeko tratamenduak askotan gure poltsikoetatik ordaindu behar izan ditugula.



Bada garaia gure alorrean jasaten ditugun gaixotasun profesionalak onar daitezten indar handiz eskatzeko, baita zaharkituta dauden arauak berritzeko ere. Aski da gaixoak errudun bihurtzeaz. Aski da mutuatik anbulategira eta epaitegietara etengabe ibiltzeaz. Lanaren ondorioz gaixotu direnentzako bidezko tratamendua eskatzen dugu, baita prebentzio neurriak ere, egoera berberarengatik beste inor ez gaixotzeko. Europar Batasunak onartutako gomendioak ahots kordetako noduluak balizko jatorri laborala duen gaixotasuna dela esaten du. Aurrera pausua da, baina espainiar estatuan indarrean dagoen Konstituzio aurreko gaixotasun profesionalen zerrenda berritzen ez den bitartean egoerak berdin berdin jarraituko du.

Hezkuntza sistemak eta baita bertan lan egiten dugunok ere, zeregin handia daukagu gizartean **Prebentzio Kultura** garatzeko. Argi dago hezkuntza eta lan arloko agintariak orain arte ez dutela prebentzioa gehiegi bultzatu irakaskuntzako zehar lerro bezala, naiz eta ingurugiroa, bideko segurtasuna edo nazioarteko elkartasuna arloetan egindako lanaren eredia jarraitzeko bikaina izan. Baina gure ustez, ezin gara agintarien ekimenen zain egon. Horregatik STEE-EILASEk unitate didaktiko batzuk prestatu ditu, Nafarroako *Diario de Noticiaseko* Aula de Noticias gehigarrian (martxoak 9 eta 23 zein apirilak 6 eta 20ko aleetan) argitaratu eta [www.stee-eilas.org](http://www.stee-eilas.org) web gunean eskuragarri daudenak. Laneko segurtasuna eta osasunaren nazioarteko eguna aukera bikaina da prebentzioa ikasgeletara eramateko.

2004ko Lan Osasunaren nazioarteko egunak gure gizartean eta irakaskuntzako lanbide ezberdinetan dauden lan arriskuak jabetuago egotea ekarri behar du. Baita arrisku horiei aurre egin behar zaiela prebentzio neurriak hartuz. Helburuak merezi du: Giza Eskubideak lan munduan ere errealitatea izatea. ■